


# 15. UNITATEA




# INSTRUKZIOAK JASOTZEN ETA EMATEN

## PROGRAMAZIOA: 15. UNITATEA *INSTRUKZIOAK JASOTZEN ETA EMATEN*

| HELBURUAK | JARDUERAK | EDUKIAK | TREBETASUNAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ENTZUM | IRAKUR | ELKAR | MINTZ | IDAZM |
| Instrukzio labur eta sinpleak jarrai ditzake, batez ere irudiak baditu.<br><br>Erantzun laburrak eman ditzake.<br><br>***Testu liburuetako eta irakasleen instrukzioak irakurri eta entzun, erantzun egokia emanez.***<br><br>***Bizpahiru instrukzio sinple eman jarraian.*** | *Trebatze jarduerak: 1., 2. eta 3.*<br><br>*Aplikazio jarduerak:4., 5., 6. eta 7.* | *Aditza: Agintera*<br><br>*Lexikoa: Akademikoa*<br><br>*Antolatzaileak:*<br>*Lehendabizi*<br>*Gero*<br>*Azkenik* | | | | | |

PROGRAMAZIOA: 15. UNITATEA

*INSTRUKZIOAK JASOTZEN ETA EMATEN*

1. JARDUERA

*Aginduak irakurri eta eman:*



Irakur ezazu 54. orrialdea.



Bota ezazue pilota urruti.



Begira ezazue herrialde hau.



Altxa ezazu besoa.



Entzun ..............ikasgaia.



Jan ................janaria.



Ikus..................liburua.



Idatz..................gutun bat.



Begira ..................web orri hau.



Har ........................pintxo bat.

PROGRAMAZIOA: 15. UNITATEA

*INSTRUKZIOAK JASOTZEN ETA EMATEN*

| 2. JARDUERA | 3. JARDUERA |
|---|---|
| *Irakurri hurrengo instrukzioak eta ulertu:* | *Azal ezazu zure hitzetan zer den egin behar dena:* |
| Irakurri ondoko testua eta erantzun galderei. | ______________________________<br>______________________________ |
| Ondoko baieztapenetatik zein dira zuzenak eta zein okerrak? | ______________________________<br>______________________________ |
| Testuko informazioaz baliatuz, osatu ondorengo testua. | ______________________________<br>______________________________ |
| Azpimarratu ondoko testuan dauden aditzak. | ______________________________<br>______________________________ |
| Grabazioa entzun eta azal ezazu esaten duena. | ______________________________<br>______________________________ |
| Testuko informazioaz baliatuz, osatu ondorengo koadroa/ taula. | ______________________________<br>______________________________ |
| Erantzun ieziezu ondoko galderei. | ______________________________<br>______________________________ |
| Informazioa irakurri ondoren, erantzun galdera hauei. | ______________________________<br>______________________________ |

PROGRAMAZIOA: 15. UNITATEA

| | |
|---|---|
| ERROSKILAK | IRURITAko eskolan egindako lana. |
| OSAGAIAK | |
| | **-Irina: kilo bat**<br>**-Mantekila: 300 gramo**<br>**-Arrautzak: 6**<br>**-Esnea: baso bat**<br>**-Bikarbonato: kutxara erdia**<br>**-Anisa: 4 kutxara**<br>**-Azukrea: 350 gramo**<br>**-Olioa: litro bat** |
| EGITEKO MODUA | |
| | *Lehendabizi,*<br>**Ontzi batera bota: mantekila (urtuta), arrautzen gorringoak, esnea, bikarbonatoa, anisa eta azukrea. Kutxara batekin edo batidorarekin ongi nahasi.**<br>*Gero,*<br>**Irina poliki-poliki gehituko dugu, hasieran kutxara batekin**<br>**nahastuz eta gero eskuekin.**<br>*Orduan,*<br>**Egindako masa ordu erdi bat utziko dugu deskantsatzen.**<br>*Gero,*<br>**Txistorrak egin eta borobildu egingo ditugu.**<br>*Azkenik,*<br>**Olio bero-beroan frixituko ditugu eta gustora jan.** |
| | **EGILEAK: Iruritako eskolako 3-4- 5-6 mailakoak** |



PROGRAMAZIOA: 15. UNITATEA

*INSTRUKZIOAK JASOTZEN ETA EMATEN*

4. JARDUERA

*Irakur ezazu aurreko errezeta eta idatz ezazu zuk dakizun bat:*

______________

*Lehendabizi,* ______________________

______________________________________

______________________________________

*Gero,* ______________________________

______________________________________

______________________________________

*Azkenik,*____________________________

______________________________________

______________________________________

EGILEA:______________________________

5. JARDUERA

*Konta iezaiozu idatzi duzun errezeta zure ondokoari.*

6. JARDUERA

*Ordenadorea piztu eta posta elektronikoa bidaltzen ikasiko dugu:*

*Lehendabizi, ordenadorea piztu.*

*Gero, itxaron pixka bat eta "Hasera"n edo "Inicio"n klik egin.*

*Orduan, "Outlook express" gutunazala bilatu eta aurkitzen duzunean klik egin.*

*Gero, "Posta berria"n klik egin eta mezua idatzi. Ez ahaztu helbide elektronikoa idaztea.*

*Azkenik, "Bidali"n klik egin.*

7. JARDUERA

*Idatz iezaiozu mezu bat zure lagun bati eta bidali.*